

AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK 2024

2023KO MAITZAK



AURREKONTU

PARTE-HARTZAILEAK

2024

Itzulpen Txostena – I.Fasea

Sarrera

Aurten ere, Getxoko Udalak 20214ko ekitaldirako aurrekontu parte-hartzaileen prozesua jarri du abian.

Prozesu horren lehen fasea, herritarrek proposamenak egiteko fasea, 2023ko otsailaren 9tik martxoaren 5era bitartean egin zen. Fase horretan parte har zezaketen:

1. Getxon erroldatutako 16 urtetik gorako edozein pertsona.
2. Getxoko Udaleko erakundeen erregistroan inskribatutako edozein erakunde.
3. Ordenamendu juridikoaren arabera nortasun juridikoa duen eta egoitza soziala edo establezimendu iraunkorra Getxon duen edozein elkarte, fundazio, sindikatu, empresa-elkarte, elkargo profesional, zuzenbide publikoko korporazio edo bestelako erakunde.

Prozesuan parte hartu ahal izateko, **kanal** hauek egon dira:

ü "Zeugaz" herritarren partaidetzarako plataformaren bidez: zeugaz.getxo.eus

ü Hautestontziak Fadura eta Gobelako kiroldegietan, Algortako (Torrene) eta Areetako (Ogoño) Herritarrentzako Arreta Bulegoetan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), Romo Kultur Etxean eta San Nikolas liburutegian.

ü Algorta, Areeta eta Bidezabalgo metro geltokien inguruan eta Bentan egokitutako postontziak.

ü Prestakuntza ikastetxeetan eta zahartze-aktiboa:

1. IES Aixerrota: otsailak 15, 2 hitzaldi euskaraz
2. CPEIPS Azkorri: martxoak 1, hitzaldi 1 euskaraz
3. Zahartze-aktiboa: 16 de febrero, en R.K.E., bilingüe

ü Moduluak:

- Fadurako kiroldegian, mahaia: otsailak 17 eta 28

- Areetako Eskoletako plaza: otsailak 24 eta 25
- Maidagan parkea: otsailak 27
- Luis López Osés kalea, Gobelako kiroldegiaren ondoan: otsailak 28
- Bidezabalgo osasun-etxearen ondoko plaza: martxoak 1 eta 2
- Algortako Geltokia plaza: matxoak 3 eta 4

Ordutegia: 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Proposamenek jarraibide hauek bete behar zituzten:

1. Getxoko Udalaren eskumenekoak izan behar dira.
2. Interes orokorrekoak eta herritar guztientzat interesgarriak izan behar dira (proposamenak udalerrri osoaren ongizatea lortzea izan behar du helburu, kolektibo handi batena, eta ez interes partikularrak edo pribatuak.
3. Prozesuaren xede den parte-hartze izaerako prozesuari buruzko urteroko aurrekontu-ekitaldian finantzatu behar dira.
4. Proposamenak gauzatu daitezzen, bideragarriak izan behar dira baliabide tekniko, juridiko eta ekonomikoei dagokienez, bai eta giza baliabideei dagokienez ere.
5. Zehatzak izan behar dute, ekonomikoki ebaluatzeko modukoak, eta ulertzeko moduan planteatu behar dira.
6. Ezin izango da laguntza ekonomikorik, dirulaguntzarik, bekarik, saririk edo langileen kontrataziorik eskatu..
7. Proposamenak gauzatu gabe egon beharko dira eta ez dira beste udal proiektu batzuen bidez edo beste edozein arlo edo erakunde autonomoren bidez gauzaten ari izango, ezta aurreko aurrekontuetan edo parte-hartze izaerako prozesuetan onartuta eta/edo gauzatuta egongo.
8. Proposamenen edukia ez da legez kanpoko, iraingarria edo baztertzailea izango, eta dagoen lege esparru juridikoa errespetatuko du.

Proposamenak jaso ondoren, eta, edukiaren arabera, udaleko zerbitzu teknikoei helarazi zaizkie, herritarrek aurkeztutako proposamenen bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa azter dezaten. Jarraibideetan jasotako balditza guztiak betetzen dituzten proposamenak, lehenago azaldukoak, "Proiektu" gisa hartuko dira.

Getxoko Udalak hautatutako proiektuen behin betiko zerrenda jakinaraziko du. Bigarren fase batean, Getxoko bizilagunek lehenetsiko dituzten proiektu horiek.

Prozesua amaitutakoan, herritarrei itzultzeko txosten bat egingo da, hartutako proposamenak eta erabakiak justifikatuko dira.

Parte-hartzeari buruzko datuak:

Ondoren, lehen fase honetan prozesuarekin lotutako parte-hartzearen azterketa egiten da:

Guztira **745 inprimaki** jaso dira (aurreko urtean baino 112 pertsona gehiagok parte hartu dute).

- ü **726 formulario baliodun** (iaz baino 135 formulario baliodun gehiago).
- ü **19** baliogabeak dira hainbat arrazoiengatik (ez identifikatzeagatik, erroldan baja emateagatik, etab.)

Baliozko inprimaketatik jaso dira:

- 631 paperean (146 postontzietan, 195 hautestontzietan eta 290 moduluetan).
- 95 on line "Zeugaz"en.


Postontziak eta hautestontziak	341	
Moduluak	290	
Zeugaz	95	
Baliogabeak		19
Guztira	726	

Beste urte batez, parte-hartze presentzialak online parte-hartzea gainditu du. Parte-hartze horretan, hautestontzi eta postontziekin, ikastetxeekin, zahartze aktibokoentzako hitzaldiekin eta moduluekin egindako bilketa-kanalak mantendu dira.


Paperean entregatutako inprimakiak honela banatu dira: 43 Algortako postontzian, 76 Areetako postontzian, Bidezabalean 23 eta Bentan 4. Hautestontzietan: 21 Villamonten, 5 San Nikolasen, 69 Faduran, 16 Areetako HABn eta 16 Algortako HABn, eta 42 Romo Kultur Etxean.

Postontzia Algortaa	43	%13
Postontzia Areetan	76	%22

Postontzia Bidezabalen	23	%7
Postontzia Bentan	4	%1
Hautestontzia R.K.E.n	42	%12
Hautestontzia Algortako HABn	16	%5
Hautestontzia Areetako HABn	16	%5
Hautestontzia Gobelan	26	%8
Hautestontzia Faduran	69	%20
Hautestontzia Villamonten	21	%6
Hautestontzia San Nicolasen	5	%1
GUZTIRA HAUTESTONTZIAK- POSTONTZIAK	341	%100



Moduluetan 290 izan dira guztira (39 Fadurako mahaian, 51 Areetako Eskolen plazan, 83 Bidezabal plazan, 45 Algortako Geltokiko plazan, 49 Gobelan eta 23 Maidagan parkean).




Online jasotako formularioak "Zeugaz" parte-hartze plataformaren bidez 94 izen dira (iaz baino 13 gehiago).

Zeugaz	94	
Total	94	%100


726 inprimaki eta 1310 proposamen geratu dira baliozkotzat (partehartzaile bakoitzak proposamen bat baino gehiago egin dezake formularioan).

ADINA

ADINA	EMAKUME	GIZON
16-30	18	41
31-50	87	60
51-70	139	97
71-94	103	87




GIZONAK



■ 16-30 ■ 31-50 ■ 51-70 ■ 71-94



EMAKUMEAK




■ 16-30 ■ 31-50 ■ 51-70 ■ 71-94

PARTE-HARTZEA AUZOETAN

Paperezko formularioak bakarrik kontuan hartzen dira, ezin baitira online formularioetako datu horiek jaso.





Guztira: 1310 PROPOSAMEN

PROPOSAMENAK JASO DITUZTEN ARLOAK

ARLOA	GUZTIRA
Azpiegituren, Obren eta Zerbitzuen arloa. Ingurumena	753
Getxo Kirolak	144
Gizarte Kohesiorakok arloa	138
Hirigintza-plangintza, Kudeaketa eta Diziplina arloa. Udal eraikinak	84
Herritarren Segurtasun arloa	59
Kultur Etxea	45
Kontratazio, Ondare eta Etxebizitza arloa	30
Tokiko Ekonomia Garapenerako eremua eta Turismoa	27
Gobernu Irekirako eta Modernizaziorako arloa	20
Diruzaintza arloa	6
Alkatetza	3
Udal egoitza	1
	1310

Ekarpenak eta proposamenak:

Jasotako proposamen guztiak teknikoki aztertuta, 184k 2023ko aurrekontu parte-hartzaileen prozesuaren bigarren fasean integratzeko baldintzak betetzen dituzte.

GUZTIRA 184 PROPOSAMEN

ARLOAK

